

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

57
positibo berri
3.571
positibo guztira*

1.636
hildako EAEn
8
UCIn EAEn

NAFARROAN

59
positibo berri
7.673
positibo guztira

531
hildako
8
UCIn

*Hernanin 81 Astigarragan 30

Ansa II.ak eta Juaneneak gaur emango diote hasiera Kutzabank Torneoari finalaurdenetako ligaxkarekin

Ligaxka honetan Goikoetxea V.a da hirugarren partaidea eta hiru partidu jokatu ostean bakarra pasako da finalerdietako ligaxkara. Orduan sartuko dira txapelketan Endika, Urriza eta Barrenetxea IV.a faboritoak.

HERNANI ERREMONTA

Buruz buruko Kutzabank Torneo gaur hasiko da finalaurdenetako ligaxkaren lehenengo partiduarekin. Bertan, ariko dira jaialdiko bigarren partiduan Ansa II.a eta Juanenea nor baino nor, 17:00etatik aurrera. Lehenengo eguna da Galarretak ateak ireki zituenetik ostegun batean jaialdia jokatu dena.

Finalaurdenetako fase honetan hiru erremontistak jokatuko dute, aipaturiko Ansak eta Juaneneak eta Goikoetxeak ere bai. Hiru partidu jokatuko dira gaur, larunbatean eta gaur zortzi, abuztuaren 20an. Ligaxka irabazten duenak finalerdietako ligaxkako txartela lortuko du. Ligaxka horretan sartuko dira lehian, abuztuaren 22an,

Endika, Urriza eta Barrenetxea IV.a faboritoak.

Aurreko urtean Ansa II.ak jokatu zuen azken ligaxka hori, baina aurten sailkatzeko Juanenea eta Goikoetxea V.a gainditu beharko ditu eta ez da erraza izango. Juaneneak erakutsi du aurreko partiduetan sasoi betean dagoela eta erraz irabazi ditu partiduak. Goikoetxeak ere erakutsi berri du 50. urteurren txapelketan bere jokoak gorakada nabaria izan duela.

Partidu parekatua espero da antzekotasun haundiko bi erremontisten artean

Galarretan gaur jokatuko den partidua estua, parekatua eta maila haundikoa izatea espero da. Bi aurrelarien artean lehia dago eta maila parekoa dute.



Juaneneak B mailako finala erraz irabazi zuen eta sasoi betean dago.

Jokatzeke era ere antzekoa da. Biak jotzaileak dira eta Ansak ahulgunea defentsan du batez ere eta Juaneneak erasoko jokoa gehiago. Aurrelariak izanda sakearen garrantzia haundia izango da eta sakatzen asma-

tzen duenak garaipena gertuago izango du.

Nahiz eta galdu garrantzitsua izango da tantoen kopurua. Ligaxkaren sailkapena puntuen arabera egiten da eta garaileak lau puntu batzen ditu, 27-29 tan-

to bitartean egiten dituenak bi puntu izango ditu, 24-26 tanto bitartean puntua gehituko da sailkapenean, 17-23 tanto bitartean ez da punturik batuko eta 17ra iristen ez denak puntu negatiboa izango du. **K**

Gipuzkoako zerga bilketa metatua %19,9 jaitsi da uztaile arte, aurreko urtearekin alderatuta

Foru Aldundiak aurreko urtean baino 456 milioi euro gutxiago bildu ditu 1.831 milioi euro bildu eta gero. Zerga nagusietan nabari da beherakada.

URUMEA ZERGA

Zerga bilketa metatua %19,9 murriztu da Gipuzkoan uztaile arte, aurreko urteko denboraldi berdinarekin alderatuta. Guztira 1.831 milioi euro bildu dira eta, ondorioz, 2019an baino 456 milioi euro gutxiago batu dira. Zifrak azaltzen du, alde batetik, sarreraren arloan izandako behe-

rakada nabarmena, %14,2 murriztu baitira; itzulketek, bere aldetik, %1,2 egin zuten gora. Beherakada batez ere zerga nagusietan islatzen da, COVID-19 gaitzak sortu duen mundu mailako pandemiak eragin duen osasun krisia arlo ekonomikoan izaten ari den inpaktua dela eta. PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kasuan, kontutan

hartu behar da kanpaina hila-bete luzatu dela.

Zifrak xehatuz gero, eta Errentaren gaineko zergarekin hasiz, lan atxikipenen atalean 17,1 milioi gehiago jaso ditu Ogasunak (+%2). Hala ere, PFEZ bere osotasunean hartuta emaitza negatiboa da, pasa den urtean baino 141,7 milioi gutxiago batu dira eta (-%17). Bestalde, honako hiru kontzeptu hauek erdibana egiten dira PFEZ eta Sozietateen gaineko Zergaren artean: behera egin dute kapital higikor eta higiezin atxikipenek, 7 milioi

(-%12,6) eta 0,9 milioi (-%3,2). Aldiz, hazi egin dira ondare irabazien gaineko atxikipenak, 9,8 milioi euro gehiago bildu baitira (+%46,9).

BEZari dagokionez %16,6 jaitsi da bilketa metatua

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, kuota diferentzial garbiak 6,8 milioi euro gutxiago jaso ditu: sarrera gordinak 4,3 milioi euro jaitsi dira, eta itzulketak 2,5 milioi eurotan murriztu dira. Bestalde, Aldundiak kudeatzen duen BEZari dagokionez, zerga

bilketa metatua %16,6 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta, hau da, 107,8 milioi euro gutxiago: 74,5 milioitan jaitsi dira sarrerak (-%9), itzulketak 13,3 milioi jaitsi dira (-%3,1) eta lurralde arteko doikuntzak 46,6 milioi eurotan murriztu dira (-%18,6). Zerga berezietan, Hidrokarbu-roen gaineko Zerga 40 milioi eurotan jaitsi da (-%16,8). Azkenik, Estatuarekiko doiketei dagokionean, BEZari dagozkionak 46,5 milioi eurotan murriztu dira, eta zerga berezienak 27,8 milioi eurotan okertu. **K**

XXXVIII. BURUZ BURUKO ERREMONTA TXAPELKETA
KUTXABANK SARI NAGUSIA

Abuztuaren 13a

1. PARTIDA / 16:00-etan

URRUTIA II ZUBIRI vs ZALDUA II LARRAÑAGA

2. PARTIDA / 17:00-etan

ANSA II vs JUANENEA

3. PARTIDA / 18:00-etan

ETXARRI BARRENETXEA IV vs GOIKOETXEA V ENDIKA

HERNANIARRREK SARRERA

5 €

GAUR Zerua tarteka lainotsu egongo da baina zeinbat unetan eguzkia lagun izango da, hegoaldean bereziki. Arratsaldean baliteke euria egitea. **Min.18° / Max.25°**

BIHAR Temperatura igoko da berriro. Goiz partean, eki/hego-ekialdeko haizeari esker, beroenak 30°C-ren bueltan ibiliko dira hainbat puntutan. **Min.18° / Max.29°**

ARGITARATZAILEA
DOBE R
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia

GOZUEKATU UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

PEFC

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

'Panoli Kabareta' COVID-19aren aurkako txertorik umoretsuena

Gorka Ganso eta Cecilia Paganinik haur antzerkia eskainiko dute bihar Atsegindegin, 19:00etatik aurrera barreak ziurtatuz.

HERNANI ANTZERKIA

Gorka Gansok eta Cecilia Paganinik Durangoko bikote komikoa dira, eta uda honetan *Panoli Kabareta* ikuskizun berria estreinatu dute. Hernaniarren gozamenerako, bihar 19:00etatik aurrera, Atsegindegin ikusteko aukera egongo da.

Bi artistek dioten bezala *Panoli Kabareta* «Antzar&Kiaren laborategietatik atera berri den COVID-19aren aurkako 19 txertoa da. Oraindik garapen-fasean dago. Ziurrenik, birusa deuseztatzeko orduan porrot egingo du, baina bigarren mailako ondorioei esker, barre algarak ziurtatuta daude», esan dute Gorka Ganso eta Cecilia Paganik.

Gidoia txinpantze mozkor batek idatzi du

Ganso&CIA taldea zein den beraienkin argitzen dute: «Bi inozo profesional gara. Tamalez, intrusismo haundia dago lanbide honetan. Guk 20 urte baino gehiago daramatzagu jende adi-



Gorka Ganso eta Cecilia Paganinik bikote komikoa dira.

mentsuarentzat umore sinplea egiten (eta alderantziz)».

Ikuskizun honen gidoia «txinpantze mozkor batek» idatzi zuela diote. «Are gehiago, berrogeialdian telelanean arituzen».

Babes neurriak beteko dira

Panoli Kabareta txerto izan arren, orain arte bezala babes neurri guztiekin eramango da aurrera ikuskizuna. «Agintari eskudunen eta normaltasun berriaren bilakaeraren arabera-koa izango da», jakinarazi dute antzezleek.

Hala ere bere umore zorrotz eta zuzen horrekin ondorengo diote. «Gure ustez, antzerkia maskarilla gabe ikusi ahal

izan beharko litzateke. Eta gero tabernako terrazara joan garagardo kafia bat maskarilla eta pajitarekin hartzera, konpen-
tsatzeko».

Terrazetan bira bat egitekoak ziren, baina bertan behera utzi omen zuten. «Egia da, bertan behera utzi dugu, baina sagardotegi bateko karaoke batekin ordezkatu dugu».

Baina bihar Hernanin ikusiko dena umorea ardatz duen zirku parodia da, ikuslego guztiari eta bereziki haurrei dago zuzendua. «Autoestimu gaindosi baten emaitza da *Panoli kabareta*. Zirku edota vodevil-aren historian ez dira oroituak izango, baina behintzat barre batzuk egingo ditugu» diote. **K**

Mendi martxa Pagoaga bailarara iritsi arte

Gazte Asanblada eta Gazte Koordinazio Sozialistaren artean antolatu dute etzirako, 09:00etan, Gaztetxetik aterata.

HERNANI GAZTETXEA

Hernaniko Gazte Asanblada eta Gazte Koordinadora Sozialistaren artean antolatu duten abuztuko egitarauaren baitan, mendi martxa eta bazkaria izango dira etzi. Hiru orduko ibilaldia izango da, eta hainbat paraje ikusteko aukera izango dute. Gaztetxe gaineko eskailetan hasiko da irteera, goizeko 09:00etan. Bertatik Ugaldetxora iritsiko dira eta gero, Urruzunoko basoan murgilduko dira, Pagoagako bailarara heldu arte. Abuztuko egitarau zabala

prestatu dute antolatzaileek, eta larunbatekoa da egingo duten laugarren jardura. Abuztuaren 28an izango da azken ekintza. Hitzaldi bat egingo dute, langile kontrolpeko espazioak eta jantoki soziala protagonistak izango dituen.

Izena eman behar da aurretik 689 615 598 zenbakian

Ekintzan parte hartzeko izen abizenak bidali behar dira telefono zenbaki honetara: 689 615 598. Gainera, mendi martxaz gain, bazkaria ere egongo da aukeran, 5 euroren truke. Menu beganoa ere eskainiko dute, nahi duenarentzat. Mendi martxan eta bazkarian segurtasun neurri guztiak bermatuko direla jakinarazi dute antolatzaileek, eta parte hartzeko maskarillaren erabilera beharrezkoa dela azpimarratu dute. **K**

Zirko emanaldia, gaur, Portu auzoan

HERNANI PORTU AUZOA

Udan Kulturaz Blai programaren barruan bihar, 18:00etan, Sarini Zirkoaren emanaldia eskainiko da Ibarrolaburu plazan. Eguraldi txarra eginez gero Elizatxo ikastolara pasako litzateke espektakulua. Familientzako ikuskizuna eskaintzen du, lengoaia unibertsala, poetikoa eta dibertigarria duena. Sara Alvarezek diziplina desberdinak erabiltzen ditu. Aurten, ggoratu Portun ez dela festarik antolatuko. Bestetik, aurtengo Portuko festak bertan behera gelditu direla gogorarazi dute.

Margoketa lanengatik, trafiko mozketak

ASTIGARRAGA UDALA

Aguiko urbanizazio lanetan bideak asfaltatu eta rotunda amaitzeko lanak ari dira egiten aste honetan Arrobitxulo eta Tranbia kaleetan. Gaur eta bihar margoketa lanak egingo dira kale horietan. Hori dela eta, Arrobitxulo eta Tranbia kaleetako trafikokoan aldatketak izango dira, hala nola, trafiko mozketak laburrak eta desbideratzeak egingo dira. Hala ere, jakinarazi dute, ez dutela espero trafikoko eragozen haundirik sortzea.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Allianz 
ASEGURUAK
bizitza -
lurrik -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz asegurak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A
Larunbata, hilak 15
EGUERDIAN
IREKITA
Iturriaga kalea,10. Hernani
Tel:(943) 33 02 91

'Abuztua Donostian' programan 'Beste Urtaroak'-ek, hiru emanaldi

Musikak presentzia haundia du, baina kirol tailerrak, pailazoak eta gastronomiak ere leku garrantzitsua dute egun guztian zehar.

DONOSTIA ABUZTUA DONOSTIAN

Aste Nagusia ez, baina Donostian aspertzeko denborarik ez dago aste osoan zehar. Gaur, bihar eta etzi ere ekitaldiz josia dator. Denetariko emanaldiak eta ekintzak antolatu dira. Gaur, 11:00etan Nordic Walking zeharkaldia egingo da Kursaaletik abiatuta.

Grosetik mugitu gabe eta ordu berean, 11:00etan, Jolas eta kirol tailerretan karatea eta eskubaloia egongo dira, Katalunia plazan.

Kursaaleko terrazan Zurriola Street Food dago 12:00etan eta behin indarrak hartuta 14:00etan Beste Urtaroak taldearen kontzertua. Egunean zehar beste bi emanaldi ere emango dituzte, 19:00etan bigarrena eta 21:30etan azkena.

Arratsaldean 17:00etatik 18:00etara, Trinitate plazan, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoei irribarra aterako die txikienei eta ez hain txikiei.

Los Pasai txaranga hirian zehar ibiliko da 18:30etatik 20:30etara ibilgailuan igota.

Musikaren presentzia haundia da abuztuan eta 20:30etatik 21:30etara The Eclectric Band, musika zelta entzungai egongo da Trinitate plazan. Pailazo eta azken kontzertu honetarako sarrierak agortuta daude.

Biharko eguna ere emanaldi eta ekitaldiz josia dator

Biharko eguna oraindik eta potoago dator egitarauari begiratu gero. Goiz osoan zehar azoka jarriko da Loiola kalean; arrantza lehiaketa ere badago; jolas eta kirol tailerretan errugbia Katalunia plazan; bertsolariak eta Matilda taldea Zurriolako terrazan; Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen emanaldia Trinitate plazan... **K**